


Herritar enpresa

Enpresa, gizartean eta ingurumenean justizia eraikitzeko funtsezko eragile moduan



Enpresa

Enpresa funtsezko eragilea da gizarte globalaren eraikuntzan. Eginkizun ekonomikoaz gain, gizarte sistemako hainbat dimentsiotan duen eragina erabakigarria da, **eredu iraunkor** bat lortu ahal izateko, gizarte- eta ingurumen- arloko justizia eta guztien ongia bilatzea, oinarritzat duena.



Guztion ongia

Oinarrizko beharretan oinarritutako aberastasun banaketari egiten dio erreferentzia. Produkzioaren eta erreprodukzioaren arteko bereizketa desagerraziko duen ekoizpen sistema bat behar du. Halaber, jendeak zer denaren eta zer izan nahi duenaren esanahiari buruzko gogoeta egin ahal izango duen gizarte bat eraikitzea azpimarratuko luke, non horren inguruan erabakiak hartzeko aukera izango lukeen. Era horretan, **Guztion Ongia** bilatzeak aukera-askatasuna eta gizarte eskubideak bermatzea ere ekarriko luke, eta eskatuko luke herritarren parte-hartze politikoa suspertzea (adierarik zabalenean).



Herritartasuna

Herritartasuna norbanakoei ematen zaien estatusa da. **Metafora gisa** aplikatzen da enpresetan, haien egin-kizun sozialari eta jokaerei buruzko gogoeta egiteko. Ekarpenak egiteko gaitasuna izanda, giltzarriak eskaintzen dituen metafora da.



Herritar bertuteak

Etikaren arabera bideratutako enpresak **gizartearentzat moralki ondasun edo zerbitzu positibo bat ematea du helburu**. Portaeran herritar balioak gorpuztuz egin nahi du, jokabide bertutetsua garatuz. Herritar bertuteak aukera ematen diote enpresari gizarte ekarpena egiten jarraitzeko; **adierazpen pribatua dute eta bititza sozialean eta publikoan duten ahalmena erakusten dute**: errespetua, erantzukizuna, elkarriketa, justizia, elkartasuna, elkarlana, herritar obedientzia, neurritasuna, zintzotasuna.

Herritartasunera hurbilketa erkidego ikuspegitik

Herritartasunaren kontzeptura hurbiltzeko hainbat daude, eta horiei lotuta daude herritar ona izateak eta halako gisan jokatzek zer esan nahi duen ulertzeko moduak. Gure proposamena erkidego ikuspegi hurbilketaren aldekoa da, **herritartasuna biztanle berdinen arteko gizarte demokratikoan aktiboki parte hartze gisa ulertzen duena**. Enpresaren herritar izaera gizarte demokratiko bateko kide izate-

tik dator; bere **gain hartzen ditu herritar gisa dituen eskubideak eta betebeharrak**. Beraz, funtsezkoa da enpresak guztiona denari buruzko eztabaida publikoan parte hartzea, **hobeto ulertu ahal izan ditzan bai haren erkidegoko beharrak, bai guztion onerako ekarpena egiteko duen ahalmena, gaitasuna eta erantzukizuna**.

Herritar enpresaren anatomia

HERRITARTASUNA BERTUTEZKO JARDUERA MODUAN. Enpresako kulturaren berezko helburua eta balioak sendotzen eta egokitzen doaz, eta hainbat elementutan bistaratzen dira (egiturak, prozesuak, kontakizunak, kodeak...). Horregatik, Herritar Enpresarentzat funtsezkoa da, erakunde eta gizarte osoa implikatuz eta kontuan hartuta, bere kultura **nola eraiki, komunikatu, egokitu eta berrikusi planteatzea, bertan printzipio etikoak txertatzeko eta, ondorioz, bertutezko jokabideak izateko**.

ETENEN AURKA. Herritar Enpresak beste gizarte eragile batzuekin partekatu behar du hainbat arrazoiengatik (erosteko ahalmena, desgaitasuna, adina, generoa, etab.) **egungo merkatuak eskaintzen dituen aukeretatik urruntzen direnekin duen konpromisoa, bereziki oinarrizko zerbitzuen horniduran implikatuta daudenekin**. Ekonomia Berriekin azaleratzen ari den arazoetako bat, eten teknologikoaren sorkuntza da.

HARREMAN IDEIA. Enpresaren leku soziala ezin da ulertu gizarte arrotz batekin harremanetan dagoen subjektu ekonomiko huts bezala, harremana merkataritza esparrura mugatuta. **Herritar Enpresa gizartearen atala da, eta guztion ona lortzeko eragile sozial guztiek elkarren artean duten mendetasuna aitortzen du**. Horrexegatik zaintzen ditu bertan garatzen diren harreman motak.

ETIKA ETA LEGEA. Herritar Enpresak bere gain hartzen du bai demokratikoki ezarritako legeak betetzeko erantzukizuna, bai bere jokabideei mugak ezartzeko beharra, lege esparrua “saihesteak” giza eskubideen urraketa argiak, ingurumena suntsitzea eta abar ekar ditzakeenean. Batzuetan, lege eskakizunak moralki onargarria izango litzatekeenetik urrun egongo lirakeke. Hori dela eta, lege esparruak gairatzen dituzten konpromisoak borondatez hartzea eta eragiteko estrategiak onartzea eskakizun etikoak dira Herritar Enpresarentzat.

LANKIDETZA ELKARRIZKETA. Enpresa batek mugatu egiten du **proiektuak sortutako balioa ulertzeko modua** eta haren jomuga zein izan behar duen, **antolakuntza eratzekeko estrategien bidez** (1). Estrategia horiek honako hauek baldintzatzen dituzte: deialdia nork egiten duen, proiektuan zer interesekin sartu den edo kapital sozialaren jatorria zein den, giza kapitala edo kapital ekonomikoa den. Elkar ulertzeko modu hori **gobernantzarako faktore kritikoek bitartez finkatzen da** (2), hala nola gizarte-egitura, horren eta tekno-egituraren arteko harremana, erabakiak hartzeko prozesuak edo botere zentroak. **Enpresak proiektu hori etikoki orientatu dezan, ezinbestekoa da elkarriketa esparru kooperatibo bat sortzea, etikoki orientatutako antolaketa** bat eraiki eta garatu nahi duten eragileekin. **Enpresak balio-eramaile gisa aitortu behar ditu** (3), proiektuan **guztion ongiarekin konprometituta** sartzen baitira. Lankidetzak esparru horrek elkarriketako etiken baldintzak bultzatzen ditu (gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea...), proiektua gizarte errealitateetik aldendu ez dadin, eta hura eraldatzeko gaitasunari eutsiz.

ERANTZUKIZUNAK DITUEN SUBJEKTUA. Herritar Enpresak, bai bere egitura eta prozeduren bidez, bai bere historia eta erabakien bidez, **kultura eta kontzientzia eraikitzen eta edukitzen ditu, erantzukizunak eska dakizkiokeen subjektu bihurtzen dituztenek, gainerako herritarrei bezala**.

JASANGARRITASUNA - ERANTZUKIZUNA. Herritar Enpresak, gizarteko gainerako eragileekin batera, **iraunkortasuna** lortzen laguntzen du, **justiziarekin ezinbestean lotuta dagoen belaunaldi barruko eta belaunaldi arteko konpromiso gisa**. Horretarako, ezagutzen dituen eta bere eskumenekoak diren bidegabekeria eta jasanezintasun gaietan lidergoa onartzen du, erantzukizuna bere gain hartuz, bere ondorioekiko ez ezik, baita gizarte jasangarria eraikitzeko beharrezko kultura eta politika aldagetak ere.

GIZA KALITATEA. Erakundean, pertsonak bihurtzen dira enpresa herritartasunaren elementu bereizgarrienetako bat. Horregatik, erakundeko pertsonen **giza kalitatea hazi dadin eragitea erronka** bat da Herritar Enpresarentzat. **Garapen profesionala eta pertsonala erraztea**, herritartasun bertutetsua gauzatzeko balioak eta gaitasunak eskuratze gisa ulertuta; hau da, enpresa jabetzen da, **gizalegea ikaskuntzarako, gune pribilegiatua dela**.

GIZARTE BALIOA. Enpresaren balioei eta konpromiso publikoari buruzko elkarriketa kooperatiboak enpresaren benetako “balio sozialari” buruzko gogoeta egiten laguntzen du. Herritarren garapenak errazteko testuinguru bat behar du, gizartean jarduteko modu hori baloratuko duena, **merkatuak onartzen dituen baina gizartean edo ingurumenean kalteak eragiten dituzten praktiken bidez lor daitezkeen lehia abantailak neutralizatuz, eta kalteko praktika horiengatik, Herritar Enpresak horiek ez erabiltzea erabakitzen du**.


ITUNAK ETA SAREAK. Kultura aldagetaren eragile bihurtzeak erakundeari eskatzen dio pentsatu behar duela zer gizarte eragilek duten funtsezko egitekoa zeregin horretan. Horregatik, estrategiak garatzea, hala nola **itunak finkatzea edo sare egonkorrak sortzea, ezinbestekoa da gizarte osoan pentsamendu kritikoa eraikitzen lagunduko duen kultura lana** sustatzeko, hainbat dimentsio bereganatuko dituen (kontsumoa, baztertutako pertsonen defentsa, eragin politikoa...).

LURRALDE ERROTZE ETA ROL POLITIKOA. Herritartasun kontzeptuak berekin dakar enpresak erreferentziazko komunitateekin duen loturari buruzko gogoeta egitea. Ildo horretan, nazioz gaineko enpresak berezkoak dituzten herritartasun erronkak ezabatu gabe, agerian geratzen da **lurraldeari lotutako tokiko enpresek berezko komunitateen ongizatean zuzenean eragiteko duten ahalmena eta gaitasuna**, harreman zuzenari, ingurunea ezagutzeari, hurbileko zirkuitu ekonomikoak ezartzeari eta gizarte eragileekin duten elkarrekintzari esker, besteak beste.

DESAZKUNDE ETA HARREMAN ESTRATEGIAK. Itzulkin ekonomikoa sortzeko hazkunde eskakizuna erakundeek etikoki arrazoitzea eragozten duen faktoreetako bat da. Beharrezkoa da **proiektuaren hazkunde estrategien azterketa kritikoa egitea, eta “errentagarritasun uztarriaren” arrisku etikoak bere gain hartzen ez dituzten garapen prozesuak irudikatzea**. Harremanak garatzeak eta sarean lan egiteak lagundu egiten du balio sozial ukazina duten desazkunde dinamikak garatzen.

Herritar enpresaren triangelu etikoa

Herritar Enpresaren Anatomiak gizartean egoteko eta jokatzeko modu bat marrazten du. “Triangelu etikoak” enpresak bere buruaz duen ulermenaren, eta autokontzeptu hori bere gain nola hartu, adierazi eta garatzen duen modua aztertzeko egitura da.



Erakunde bateko Triangelu Etikoa hiru ardatzek mugatzen dute:

Izan nahi duena	Izatez dena	Izan behar duena
Adierazpen – Estrategia ardatza Zein da horren asmoa. Adierazpenetan eta araudietan gauzatuta, “kontratu sozial” moduan uler dezakeguna da.	Ardatz Praktiko – Operatiboa Erakundeak praktikan jartzen dituen jokabide zehatzak honako hauei dagokienez: ekoizpen prozesuak, merkataritza edo finantza estrategiak, lan baldintzak, erabakiak hartzeko prozesuak, etab.	Ardatz Arauemailea – Kulturala Bai inguruabar zehatzek, bai justiziaren eskakizunek erakundearen eremu publikoko portaerei eta inpaktuei aurkeztu dizkieten erroka etikoak aitortzea.

Enpresaren izaera eta kontzientzia herritarrek gizarteak harengandik zer espero duen ulertu nahi izatera bideratzen du. Xedapen horrek aldatu egiten du erakundeak betetzen duen leku sozialaz duen pertzepzioa, eta indartu egiten du guztion ongia eraikitzen laguntzeko duen erantzukizuna.

Ikuspegi horretatik, uler dezakegu Herritar Enpresa gizartean egoteko modu bat dela, non erakundeak, bere estrategia eta eragiketen bidez, herritar portaera jakin bat garatzen duen subjektu gisa ulertzen den. Portaera horrekin, balio sozial aitortua ematen du, eta **bi dinamika espezifiko**tan bermatzen da:

- 1. Gainerako gizartearekiko:** herritarren, administrazio publikoen, gizarte eragileen, finantzatzaileen, erakundearen eta abarren aurrean duen legitimitatea sendotuz...
- 2. Bere baitan:** erakundearen kultura indartuz, partaidetza prozesu baten bidez haren helburuen eta eguneroko portaeren arteko ikuspegi koherentea definituz eta txertatuz.

Triangelu Etikoaren erpinek *Herritar Enpresaren Anatomia* sistematizatzeko balio duten funtsezko **hiru gaietara bideratzen gaituzte**.

Motibazioaren gaia:
Enpresak konpromiso solidoak ezartzea ahalbidetzen du (*izan nahi du*) aukera sozial legitimoak bideratzeko (*izan behar du*).

Legitimitatearen gaia:
Herritar bertutetsu moduan jokatzeko duen subjektu gisa, enpresak duen balioa eta aitortza justifikatzen ditu, bere jokaerekin (*izatez, bada*) bidezko gizarte itxaropenei erantzuteko gai den neurrian (*izan behar du*).

Gaitasunaren gaia:
Erakundeak, praktikan (*izatez, bada*), gainerako gizartearekin hartutako konpromisoei erantzun ahal izatea eragiten du (*izan nahi du*).

Hurbiltze sistematikoa herritar enpresara

Triangelu etikoaren erpinen funtsezko hiru gaien arabera, enpresak jokabide jakin batzuk bere gain hartzen, adierazten eta garatzen dituela aitortzeko aukera ematen duten gakoak antolatu ditzakegu, herritarren erakunde baten berezko erantzukizun kontzientziari jarraituta. Beraz, Herritar Enpresaren ezaugarriak era honetan sistematizatu ahal dira:

1. Herritar Enpresa MOTIBATZEKO gakoak

1. **Herritar Enpresa** proiektuaren abiarazleak

a. Proiektua agerrarazi duten elementuak eta arazoak

b. Gizarte egitura bultzatzailea: interesak, motibazioak
2. **Gobernantza** ereduak

a. Botere egiturak eratzeke eginkizunarekiko konpromisoa

b. Gizarte egitura vs. tekno-egitura harremana (eragiletza arazoa)

c. Erabakitzeke barneko eta kanpoko prozesuak

d. Elementu horien eboluzioa proiektua garatu ahala
3. **Kultura eta Balio etikoak** enpresan

a. Barneko kultura lana: prestakuntza, parte-hartzea

b. Kulturaren kapilaritatea/iragazkortasuna erakunde osoan

c. Interakzioa komunitatearekin (gizarte itxaropenak aitortzea)
4. **Motibazio** testuingurua

a. Lege esparru aldekua hein handian edo txikiagoan

b. Gizarte kontzientzia aldekua hein handian edo txikiagoan

c. Gizarte kontzientzia eta lege aitortza eraikitzeke eragin soziala eta politikoa

2. Herritar Enpresa LEGITIMATZEKO gakoak

1. **Adierazgarritasun publikoa** rol politikoan

a. Konpromisoa bistaratzea gizarte mailako kontu adierazgarrietan

b. Horko produktuak/zerbitzuak kontsumitzaileekin lotutako ondorioak

c. Kontsumo arduratsuen aldeko lankidetzak kultura eraginean

d. Aditu mailako lidergoa norbere sektorean
2. **Kontu ematea**

a. Kanpoko elkarrekin etxeko estrategiak

b. Eraginak neurtzea, baloratzea eta komunikatzea

c. Gizarte Balantzeak argitaratzea
3. **Arauak betetzea**
4. **Erakundeke pertsonak** garatzea

a. Laneko baldintzak

b. Parte-hartzea

c. Prestakuntza

d. Kontziliazioa

3. Herritar Enpresaren GAITASUNerako gakoak

1. **Jakintza eta gaitasun** profesionalak, talentua erakartzeko gaitasuna, boluntarioritza
2. **Itunak finkatzea**

a. Hirugarren alderdi batzuekin elkarlana enpresaren funtsezko asmoa garatzeko

b. Eragin politikoa hitzartutako sareekin elkarlanean
3. **Erabakitzeke autonomia** inbertsiogileen eta finantzatzaileen aurrean
4. **Ingurua ezagutzeko eta hartara egokitzeke gaitasuna**

a. Produktu/zerbitzu eskaintzaren balio soziala moldatzeko

b. Gizarte errokkak ezagutzeko eta horiei erantzuteke
5. **Zuzendaritzako langileen eskumena**

a. Tekno-egitura enpresaren funtsezko asmoarekin lerrotatzea

b. Zuzendaritza kideen konpentsazio sistemak
6. **Epe ertain/luzeko jomuga** lehentasun estrategikoetan

Argitaratzaileak:



Finantzatzaileak: